

ILLUSTRATED by DESEGIN 2025

ONDO!

Gizendu arren txerrixak,
ez dauko erraz herrixak,
betiko kontuei jarten
urtero kopla berrixak.

Gripe, bitxo eta birus,
ta mugak horrein aginduz,
lehen sektorian min danak
ez die konpontzen diruz.

Urteurrenen dinamikan,
Franco hil zala kronikan,
Franco hil zala bai baina
borboia bueltan Gernikan.

Gurian be arrazistak,
ataraten daue txispak,
Urrin uste eta gertu
ez ote dabitz faxistak.

Gezur, burla ta mehatxu,
ultra eskuma ahaltsu,
ez deigun guretzat hartu
hainbeste diskurso faltsu.

Tentetu deigun burua,
guria da abendua,
plaza hontan kabitzen da
amesten dogun mundua.

Hankak sendo lotu plazan,
begi bat jarritta Gazan,
ez dala konpondu aber
sartzen jakun kalabazan.

Talde txikinen baturak,
ta herri baten bizi-gurak,
zentzua hor hartzen daue
herrigintzak ta kulturak.

Ipuinak ta kalabazak,
danak hartzen dittu plazak,
guretik ta guretako,
ondo pasau ***Santamasak!***

· ANE ZUAZUBISKAR ·



Arrasateko
Hainbat KULTUR TALDE
Arrasateko UDALA
SANTAMAS KOMISIÑUA

abenduak 12
EGUAKOTXA

19:30 / Seber Altube plazako karpan, **umorezko bakarrizketa saioa.** Parte hartzaileak: **Lander Varona, Amaia Ruiz de Galarreta eta Asier Galarza.**

abenduak 13
ZAPATUA

10:00 / Kulturolan **pandero tailerra.** Herritar guztiei zabaldua, adin guztietakoei. **Arrasateko trikitixa eskola**ren eskutik.

10:00-12:30 / Kulturolan, dantza taldeen lokaletan, **txerri-dantza ikastaroa, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz** dantza taldeen eskutik. Parte-hartzeko, aurrez izen ematea beharrezkoa izango da.

11:30-13:30 / Seber Altube plazako karpan, **jostailu truke azoka, Txatxilipurdi** elkartearen eskutik.

13:00 / Herriko Plazan, **borobileko dantza parte-hartzaileak, Lore Gazteak** eta **Txikitxu-Arrostaitz** taldeen laguntzarekin. Euria bada, Kulturolako aterpean. Ostean, **Olentzeroren gutun banaketa** Mateo Txistu eta Galtzagorriekin.

17:00-20:00 / Seber Altube plazako karpan, **gabonetako Km0 literatura azoka.**

abenduak 14
DOMEKA

11:00 / Herriko kaleetan zehar, **haurren Santamas krossa.**

12:30 / Herriko kaleetan zehar, **kuadrilen arteko Santamas krossa.**

19:30 / Amaia antzokian, antzerkia: **"R & J" antzezlana, La Dramatica Errante** konpainiaren eskutik.

abenduak 19
EGUAKOTXA

19:00 / Kulturateko areto nagusian **bertso saioa.** Bertsolariak: **Unai Iturriaga, Ane Zuazubiskar, Maider Arregi** eta **Julio Soto.** Gai-jartzailea: **Maria Oses**. AEDk antolatuta.

19:00 / Portaloitik hasita eta herriko kaleetan zehar, **Kantu Gira, Portaloi** elkartearen eskutik. Partehartze irekia.

abenduak 20
ZAPATUA

10:00-14:00/17:00-20:30 / Seber Altube plazan **Gabonetako artisautza azoka, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

11:00 / Seber Altube plazan **perfume solidoen ikastaroa, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

11:00 / Musakolako kiroldegian, **Santamasetako tenis eta padel txapelketako finalak.**

20:00 eta 23:00tan / Herriko Plazan, **dantzaldia Muxutruk Erromeria taldearekin.**

abenduak 21
DOMEKA

10:00-14:00/17:00-20:30 / Seber Altube plazan **Gabonetako artisautza azoka, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

11:00 / Seber Altube plazan **larruzko trentzadun pultseren ikastaroa, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

18:00 / Biterin, **Santamasetako dantzaldia**, herriko musikariekin.

18:30 / **Etxafleroen jaurtiketa**.

18:30 / Biteri plazatik hasita, **Arrasateko Erraldoi eta Kilikien konpartsaren kalejira.**

19:00 / Herriko Plazan, **"MERI XENDO"** txerriaren aurkezpena.

21:00 / Herriko Plazan **zezen suzkoa.**

22:00 / Gaztetxean, **Doce C** eta **Aizkora Rekords** taldeen **kontzertuak.**

abenduak 22
ASTELEHENA

9:00 / **Etxafleroen jaurtiketa.**

9:30 / Herriko kaleetan zehar, **Udalaxpe** txistulari taldearekin **diana**.

10:00 / Portaloian, **"MERI XENDO"** txerriaren aurkezpena.

10:00 / Jose Mª Arizmendiarrieta plazan, **ganadu eta hegaztien feria.**

10:00 / Seber Altube plazan, **fruta, barazki eta herriko saltokien azoka.**

10:00 / Biteri plazan, **Euskal Herriko produktu gastronomikoen salmenta.**

10:00 / Herriko Plazan, **taloen salmenta**.

10:30 / Jokin Zaitegi plazan, **artisau langintzen jarduera feria.**

11:00 eta 13:00 / Jose Mª Arizmendiarrieta plazan, **artile mozketa erakustaldia. Mikel Velasco**ren eskutik.

11:00 / Portaloitik hasita eta herriko kaleetan zehar, **Trikikun**en eskutik **kalejira.**

11:00 / Herriko kaleetan zehar **albokariak.**

11:30 / Herriko kaleetan zehar, **kalejira: Arrostaitz** eta **Lore Gazteak** dantza taldeak, **Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea** eta **Arrasateko gaiteroak.**

11:30 / Herriko kaleetan zehar, **Iturengo Joaldunak.**

11:30 / Herriko kaleetan zehar, **Incansables txaranga.**

11:30 / Herriko Plazan, **Arrostaitz** dantza taldearen saioa.

12:00 / Jose Mª Arizmendiarrieta plazan, **zaldi perratze erakustaldia. Juan Ignacio Regorigo**ren eskutik.

12:10 / Herriko Plazan, **Arrasateko Trikitilarien** saioa.

12:30 / Zaldibar frontoian, **herri kirol erakustaldia.** Aizkolarien arteko lehia, euskal pentatloia, harrijasotzea, motozerrakin eginiko tailuak. Parte hartzaileak: **Julen Kañamares, Txomin Amundarain, Uxue Ansorregi, Karmele Gisasola, Jon Marijuan** eta **Peio Kañamares. Trontza herrikoia** ere egongo da.

12:50 / Herriko Plazan, **Lore Gazteak** dantza taldearen saioa.

13:30 / Herriko Plazan, **Trikikun**.

13:45 / Herriko Plazan, **txerri-dantza herrikoia.**

14:45 / Musakolako kiroldegian, **herri bazkaria**.
Doako autobus zerbitzua egongo da ***14:00-14:45*** Maalako biribilgunetik joateko eta ***17:30-19:00*** Musakolatik itzultzeko.

Bazkalostean, **DJ PUTZU**ren eskutik **dantzaldia.**



18:00 / Uarkape Udal **pilotalekuan profesional mailako pilota partidak**. Eskuz binakako txapelketa.
Bakaikoa - Lizeaga / Murua - Eskuza.
Jaka - Iztueta / P. Etxeberria- Rezusta.

19:00 / Arbolapetatik, Seber Altube eta Herriko Plazaraino, **Batzen dantza herrikoia.**

19:30 / Herriko Plazan, **txerri-dantza herrikoia.**

19:30 / Herriko Plazan, **Larrain-dantza herrikoia, Arrasateko gaitero** eta **Garinbandeko** musikarekin.

20:00 / Herriko Plazan, **txerri zozketa.**

20:15 eta 23:15 / Herriko Plazan, **dantzaldia Mugi Panderoa** taldearekin.

00:00 / Gaztetxean, **DJ Enchantix**en eskutik **dantzaldia.**

abenduak 23
MARTITZENA

10:00-14:00/17:00-20:30 / Seber Altube plazan **Gabonetako artisautza azoka, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

17:30 / Kulturateko areto nagusian, **"Bazen Behin...Herritxo batean..." ipuin kontaketa, Maider Alcelay** kontalariaren eskutik. 6-12 urteko haurrentzat bideratuta.

19:30 / Amaia antzokian, **Ruper Ordorika**ren kontzertua.

abenduak 24
EGUAZTENA

10:00-14:00 / Seber Altube plazan **Gabonetako artisautza azoka, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

11:00 / Seber Altube plazan **enkoadernazio ikastaroa, Eskuartean Artisau Kolektiboaren** eskutik.



11:20 / **Txoronpiak, Txoronpiok, Mateo Txistuk eta Galtzagorriek** Munar, Uribe Auzoa, San Andres, Aprendices plaza, Zigarrola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte Olentzeroren gutunak.

13:30 / **Herriko Plazan, Txoronpiak, Txoronpiok, Mateo Txistuk eta Galtzagorriek** Olentzeroren gutunak jasoko dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, Kulturolan.

18:30 / **Monterronen, Olentzeroren etorrera.** Ibilbidea; Otalora, Maalako Errabala, Erdiko Kale eta Herriko Plaza.

19:00 / Herriko Plazan, **Olentzeroren agurra.**

19:00etatik aurrera / Herriko kaleetan zehar, **Goikobalu** abesbatzaren **gabonetako kantaldia.**

abenduak 27
ZAPATUA

18:30 / San Frantzisko elizan, **Txorbela Otxotearen kontzertua.**

abenduak 28
DOMEKA

19:30 / **Txikitxu-Arrostaitz** dantza taldearen 55-35. urteurreneko **"URRATSAK SENDO, OINAK ARIN" dokumental emanaldia**. Sarrerak Amaia Antzokiko webgunean eskuragarri, doan.

abenduak 29
ASTELEHENA

19:30 / **Txikitxu-Arrostaitz** dantza taldearen 55-35. urteurreneko **"URRATSAK SENDO, OINAK ARIN" dokumental emanaldia**. Sarrerak Amaia Antzokiko webgunean eskuragarri, doan.

abenduak 31
EGUAZTENA

13:00 / Amaia antzokian, **Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua.**

18:30 / Herriko kaleetan zehar, **Txorbela Otxotearen emanaldia.**



maketazioa eta
ilustrazioak

www.desegin.com

ilustrador_desegin *desegin*